

Pakea Bizkaia bere lehenengo helmugara iritsi da

Bere lehenengo nabigazio-astearen ondoren, atzo, urriaren 15ean, Kanaria Handiko Las Palmasera iritsi zen. Itsaso onak eta nabigazio lasaienez egokiak diren haizeek, tripulatuzaileak egunak joan ahala moldatzen joan zitezela lagundu dute.

Pakea Bizkaia atzo arratsaldean iritsi zen Kanaria Handiko Las Palmasera, Bilbotik pasa den urriaren 7an abiatu ondoren. Momentu hauetan ontziaren mantenimendua, beharrezko erosketak eta informazioa bidalketak egiten dihardute tripulatuzaileak, beste hainbat gauzaren arretan.

Nabigazioaren lehenengo astea ezin hobea izan da baldintza meteorologikoei dagokienez eta tripulatuzaileen egokitzapenari dagokionez. Itsaso onak eta nabigazio lasaienez egokiak diren haizeek, tripulatuzaileak egunak joan ahala moldatzen joan zitezela lagundu dute. Singladura ugari nabigazio orok, nabigatuzaileak belaontzira astiro moldatzea eskatzen du, hala nola bere bizigarritasun, zaintza eta nola ez, egunero bai egun argiz eta bai gauz aurkezten diren errealitate meteorologikotara.

Pakea Bizkaiko tripulatuzaileek, beharrezko jarrera eta gaitasuna erakutsi dute nabigazioaren lehenengo aste honetan, eta hori datorren nabigazioetarako eskola bezala izango zaie baliagarri.

Temperatura epeltzen doa belaontziak latitudea galtzen doan heinean. Hori tripulatuzaileei baliagarri izango zaie pixkanaka Atlantikoa zeharkatzerakoan lagunduko dieten temperatura altuetara moldatzeko.

Bestalde, hegoalderantzko itsasaldian izurde talde ezberdinek Pakea Bizkaia bisitatu zuten. Bizkaiko Golkoan zehar, izurde arrunt gehiago ikusi zituzten, baina Gibraltarreko pasabide parera iritsi bezain laster, izurde marradun talde ezberdinak hurreratu ziren, hain berezkoak dituzten saltoak ematen. Horrez gain, bale konkorduna ere ikusi dute zeharkaldian.

Kanaria Handiko geldialdian, Unai Basurko nabigatuzailea eta bere tripulazioa “La Rueda de Navegantes”-en zuzendariarekin, Rafael del Castillorekin, elkarrizketatuko dira. Gaur arratsaldean, ontzia bisitatzeko eta tripulatuzaileekin hitz egiteko aukera izango da. Ostegunean Teneriferantz nabigatuko dute. Bertan Unai Basurkok, ostiralean, urriaren 19an arratsaldeko 16:00etan, “Lehiaketatik hezkuntzara” hitzaldia eskainiko du Biologiako Fakultatean. Pakea Bizkaiko tripulatuzaileetako batek, Ane Alberdik, Itsas-Biologia ikasi zuen La Lagunako Unibertsitatean.

Antartikarantz doan espedizioaren lehenengo etapak tripulazioa Bahia Blancaraino eramango du. Tenerife ondoren Cabo Verde, Buenos Aires eta Necochea bisitatu dituzte.

Informazio gehiago eta elkarrizketak:

Komunikazio Atala

Nagore Anabitarte López

Tel. 943 50 39 55/688 661 690

Informazioa, irudiak eta bideoak: www.pakeabizkaia.com/ftp